


Z
ZURE BISITARAKO
LAGUNGARRIAK




K



PPPPPPDDDLAYYY



L
A
Y
Y
Y
Y



FAMILIAN

GETXOPHOTO
GETXOPHOTO
GETXOPHOTO

FAMILIAN

PLAY!



GET
XO
PHO
TO

● NAZIOARTEKO IRUDI JAIALDIA
[WWW.GETXOPHOTO.COM]

¡K KAIXOOOO!!!!

Getxophotoko artisten lanetan inspiratuta, lagungarri, ideia eta jolas hauek proposatzen dizkizuegu, Jaialdian zehar egingo duzuen paseoaz goza dezazuen. Etxean ere egin ditzakezue!

Edizio honetan lotsa galduko dugu! Jantzi itsusi eta astun bat izango balitz bezala, gorputzetik kendu eta arinago mugituko gara!

3, 2, 1... Jolasteraaaaa!


●ZER BEHAR DUZU?

ERROTULADOREA, BOLIA EDO ARKATZA, KLARIONA ETA ONDO PASATZEKO GOGOA!
*DENBORA GABE GELDITZEN BAZARA, ETXEAN AMAITU.

15 ☀️ → 16 ☀️ → 14 ⚙️ → 3 ☀️ → 1 ⚙️ →

2 ☀️ → 4 ☀️ → 5 ☀️ → 7 ☀️ → 8 ☀️ *BONUS TRACK: 9 ☀️

🚶 1KM 🕒 1:30H



15 ☀️ ARNAU ROVIRA [FANTASIA RESORTS] EREAGAKO HONDARTZA I

Nori ez zaizkio jolas-parkeak gustatzen? Txirrista handietatik zure burua botatzea, jakinik ez zaizula ezer gertatuko, ikaragarria da!

Gaurkoan dakargun jarduera publiko guztientzat da 😊



DENOK LURRERA!

ILARAN ESERI ETA ERRUSIAR MENDI BAT EGINGO DUGU, MUNDUKO DIBERTIGARRIENA. AURREAN DOAN PERTSONA MAKINISTA IZANGO DA, ETA BERE AGINDUEI KASU EGIN BEHARKO DIEGU: GORA! EZKERRERA! GORA BERRIRO! ESKUINERA!... TXIRIBUELTA ERE BAI!!



↳ Zergatik uste duzue erakartzen gaituztela hainbeste jolas-parkeak? Ihes egiteko, emozio gogorrak segurtasunez bizitzeko, fantasian murgiltzeko...

16  **ANNA ETA BERNHARD BLUME**
[ZAILTASUN EDIPOTARRA?]
EREAGAKO HONDARTZA II

Mundu honetan badirudi hurrek bakarrik jolastu dezaketela, baina zer gertatzen da adineko pertsonekin? Gaizki ikusia al dago adin jakin batean ondo pasatzea?

BA, EEEEEEEEEZ!
JOLAS DEZAGUN ETA... EZ EPAITU!!!



ARGAZKI HAUETAN AGERTZEN DEN FAMILIA BEZALA, GIHARRAK ASTINDU ETA BURUA PIZTUKO DUGU... MUGITU ESPAZIOTIK ETA ASKATU ZURE GORPUTZA: BURUA, BESOAK, IPURDIA... OIHU EGIN NAHI BADUZU, EGIN LASAI! BEHATUA SENTITZEN ZARA? GONBIDATU BEGIRATZEN ARI DIREN PERTSONEI BAT EGITERA! ZENTZUGABE ETA LOTSARIK GABE.

JOLASTU




- ↳ Zuen ustez, edozein adinetan jolastu daiteke?
- ↳ Helduentzako kirolez edo mahai-jokoez gain, beste jolasaren bat bururatzen zaizue?

16  **LU YANG**
[DOKU THE SELF]
EREAGAKO HONDARTZA II

Bideojokoen bidez, geure pertsonaia eraiki dezakegu. Gu geu izan gaitzke, edo pertsonaia berri bat asmatu: beste kolore bateko ilea izan, tatuajeak, botere magikoak...



MARRAZTU ZURE AVATARRA. ZER BOTERE IZANGO LUKE?



1 4 **MASAHISA FUKASE**
[YOKO, LEIHOTIKAN]
EREAGAKO IGOGAILUA

Zer gertatuko litzateke egunero ordu berean argazki bat aterako bagenu?
 Gure arroparen, ile-mozketaren, umorearen edo urtaro aldaketaren
 desberdintasunak ikusiko genituzke.

APROBETXATU IGOGAILUKO UNE HAU... INORK EZ GAITU IKUSTEN!
IMAJINA EZAZUE NORBAITEK ARGAZKI BAT EGITEN DIZUELA:
POSTURAREN BAT EGIN, YOKO IMITATU EDO POSE BERRIAK
ASMATU. BIZKOR, DENBORA GUTXI DUZUE!



☺ ↳ Inork ikusten ez gaituenean gu garen bezala gara? Ausartagoak
 edo dibertigarriagoak? Zergatik uste duzue gertatzen dela hau?


! **BOLA GEHIGARRIA**
ASMATU FAMILIAN PARTEKATU DEZAKEZUEN TRADIZIO BAT
LEKU PUBLIKOETAN BAKARRIK ZAUDETEN BAKOITZEAN EGITEKO.
ADIBIDEZ, IGOGAILUAN DANTZATZEA BAKARRIK ZAUDETENEAN.
SUPERMERKATUAN, ZUEN ETXEETAN EDO MUSEOETAN IZAN
DAITEKE. ZUEN SEKRETUA IZANGO DA!

3 **RAQUEL MEYERS**
[MONSCII]
URGULL (URGULL Z/B)

Gora jokoak, behera teknologia!

Pantailek inbaditzen gaituzte, teknologia izkina bakoitzean dago... Baina,
 badakizu zer? Lehen beste mundu bat existitzen zen, non gorputza eta inguruan
 genituen gauza gutxi batzuk erabiltzen genituen jolasteko eta ondo pasatzeko.
 Probatu nahi duzue? Jolastera animatzen zara?

☺ **JOLASAK ETA JARRAIBIDEAK:**



☺ ↳ Pilarik edo bateriarik behar ez duten jokoekin jokatzen duzue?
 ↳ Zein da pantailarik ez duen zuen jokorik gogokoena?

! **BOLA GEHIGARRIA**
EURIRIK EGITEN EZ BADU, APROBETXATU JOLAS HAUETAKOREN
BAT KLARIONAREKIN EGITERA: ETXE AZPIAN, PLAZAN EDO
ESPALOIAN KLARIONAREKIN MARRAZTEA... ETA GOZATU FAMILIAN.



MANUELA LORENTE
[BERAK MUSIKA JARTZEN DU,
GUK DANTZATZEN DUGU]
AZOKA (TORRENE 4)

Batzuetan irudiek istorioak kontatzeko balio dute. Eta irudi bat bestearen ondoan jartzen badugu, istorio berri bat asmatzeko gai izan gaitezke!



AUKERATU LAUKI HONETAKO 5 MARRAZKI ETA KONTATU BURURATZEN ZAIZUEN ISTORIORIK ZOROENA.



ZURE ISTORIAO:



↳ Ausartzen al zarete marrazki guztiak erabiliz istorio bat sortzera? Hau eromena!



JEAN-MARIE DONAT
[BAINO, ZER ARRAIO!]
AZOKA (TORRENE 4)

Gaur egun etengabe entzuten ditugu adimen artifizialari buruzko berriak. Zaila da askotan egia edo gezurra bereiztea.

Ea gai garen!



JOKA DEZAGUN EGIAZKO EDO GEZURREZKOAREKIN. IDATZI (B) BAT BENETAKOAK DIRELA USTE DUZUEN ARGAZKIETAN ETA (F) BAT FALTSUAK DIRELA USTE DUZUENETAN.



↳ Erraza egin al zaizue?
 ↳ Irudi bat begiratzean, erraza egiten zaizue bereiztea zer den errealia eta zer fikzioa?



SPASI SOHRANI [FAMILIA]


AZOKAREN AURREALDEA (TORRENE 4)

Batzuetan, amak edo aitak nahi bezala janzten gaituzte, galdetu gabe! Inoiz jantzi behar izan dugu gustuko ez genuen arropa, adibidez lerre-zapidun soinekoa, historiako jaunartzeko jantzirik itsusiena edota gaueko 11etan grapagailu zahar batekin egindako mozorroa.

Ba orain da mendekua hartzeko momentua! 😊



MARRAZTU HEMEN AHAL DUZUEN JANTZIRIK LOTSAGARRIENA!!



↳ Zuen ustez, garrantzitsua al da modu zehatz batean janztea, nora edo norekin zoazten arabera?

↳ Supermerkatura bainujantziarekin edo elizara mozorro batekin joango zinateke?

↳ Ba al dago janzteko koderik zuen familian? Adibidez: debekatuta dago Bilbora txandalean joatea, kar kar.



MICHALINA KACPERAK [PUNTU AHULA]

CORREOS (TORRENE 6)


Rolen aldaketaaaaaa!!!

Pentsa dezagun etxeko, parkeko edo supermerkatuko ohiko egoera batean.

Adibidez: lotara joateko ordua da, txutxe bat erosi nahi duzue eta ez duzue etxera joan nahi...



EGOERA HORIEK ABIAPUNTUTZAT HARTUTA... ROL ALDAKETA EGINGO DUGU: HELDUAK HAURRAK IZANGO DIRA ETA ALDERANTZIZ!
3, 2, 1... BAGOAZ!



↳ Rolak aldatzera jolasten dugunean, hobeto ulertzen ditugu beste pertsonen sentimenduak, haien azalean jartzen garelako. Nola sentitu zarete?


↳ Zaila al da beste pertsona baten larruan jartzea?

5  **HERMANOS ZUBIAURRE**
[FANTASIA FOTOGRAFIKOAK]
METRO ALGORTA (GELTOKI PLAZA Z/G)

Argazkiarekin jolastuko dugu! Argazkigintzarekin errealitatea aldatu eta fantasiatzko mundu berriak sor ditzakegu.



- 1. PERTSONA BAT MUGIKORRAREKIN ARGAZKI BAT ATERATZEAZ ARDURATZEN DA (EDO LURREAN UTZI DEZAKEZUE, EDO HANDIK PASATZEN DEN NORBAITI LAGUNTZA ESKATU).**
- 2. GAINERAKO PERTSONAK ARGAZKIA IMITATZEN SAIATUKO DIRA. ERRAZA EDO ZAILA DA?**



*Argazki hau Daduena Etxean aurkitu dezakezu (mapan 10. zenbakia)



- ↳ Konturatu al zarete ikusten dugun guztia ez dela benetakoa?
- ↳ Argazkian erraldoiak dirudite, baina, beste ikuspegi batetik ikusten badituzu, tamaina bera dute.

7  **HAYAHISA TOMIYASU**
[PING-PONG MAHAIA]
ZABALA IKASTETXEA (ZABALA 3)

Kalean objektu bakoitzak funtzio bat du, hau da, gauza zehatz bat egiteko erabiltzen dira: zabor-ontzia edo semaforoak, adibidez. Baina batzuetan pertsonak beste erabilera batzuk aurkitzen dituzte, Hayahisaren argazkietan bezala.

Ba al dago ohikoa ez den beste helburu baterako erabiltzen duzuen objekturik edo tokirik?



PING-PONG MAHAI BATEAN EGIN DAITEZKEEN BESTE GAUZA BATZUK MARRAZTU EDO ZERRENDA BAT EGIN DEZAKEGU. EA ZENBAT BURURATZEN ZAIZKIZUEN!



_____	_____
_____	_____
_____	_____
_____	_____




↳ Eta sardexka batekin? Zer egingo zenukete?

8  **FENG LI**
[URRE KOLOREKO MOMENTUAK]
SAN NIKOLAS PLAZA

Dantza existitzen diren jolas interesgarrienetako bat da: ez du araurik eta ia mundu guztiak har dezake parte! (gorputza mugitu ezingo bazenute ere, begiekin dantza egin zenezakete).



ESKANEATU QR-A ETA SAKATU PLAY! SAIATUKO GARA HEMENDIK PASATZEN DEN NORBAIT GUREKIN DANTZATZERA ANIMATZEN... ADIN EZBERDINETAKO HAINBAT PERTSONA LORTZEN BADITUGU, HOBE!



↳ Lotsa ematen dizue dantzatzea beste inork egiten ez duenean?
↳ Kosta egiten zaizue jolastea, salto egitea edo dibertitzea bakarrik zaudetenean?

9  **LUISA DÖRR**
[NESKAK]
LA KANTERA SKATEPARK (ARRIGUNAGA)

 **BONUS TRACK**



JARDUERA HAU DATOZEN EGUNETAN EGITEKO DA. PATINEKIN, SKATEAREKIN EDO BIZIKLETAREKIN KALERA ATERA, BAINA... MOZORROTUTA! ARROPA DOTOREAREKIN EDO KIROLEKOA EZ DEN JANTZIREN BATEKIN IZAN DAITEKE, ETA KALEAN ARGAZKIAK ATERA DITZAKEZUE!



NAHI BADUZUE, #GETXOPHOTO2024 HASHTAG-AREKIN IGO DITZAKEZUE SAREETARA ETA HORRELA ZUEN LOOKA IKUSIKO DUGU. LOTSARI AGUR ESANEZ, JOKA DEZAGUN!!!!

ESPERO DUGU JAIALDIAN ONDO PASA IZANA!

